



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

Goizeko Izarra ikastola

Ikastetxearen kodea:

012348

Data:





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Goizeko Izarra Ikastola Mutriku kokatutako Ikastola dugu. Mutriku, Deba Barrena eskualdean kokatua dagoen herri euskalduna da.

1968an sortu zen Goizeko Izarra ikastola. Garai hartako hezkuntza sistema erdarazkoa zela ikusirik eta gure haurren beharrak bestelakoak zirelako, Ikastola sortzea pentsatu zuen herritar talde batek. Euren xede nagusia euskara eta euskal kultura bere arlo guztietan landu eta garatuko zuen hezkuntza proiektua lortzea izan zen.

1993an Ikastola sare publikoan integratzea erabaki zen, bere titulartasuna Eusko Jaurlaritzaren esku utziz.

1996-97 ikasturtean LOGSE legediaren arabera, DBH ezartzean, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza etapak gelditu ziren, alegia, 2 urtetik Lehen Hezkuntzako 6.maila bitarteko ikasleak.

Gaur egun herrian jaiotzen diren haurren % 75 a jasotzen ditu ikastetxeak.

Euskara eta euskal kultura ardatz dituen ikastetxea da eta gure ikasleak, euskal irakaskuntzan hazi, hezi eta bizitzeaz gain, pertsona eleanitzak izatea du helburu.

Udaletxeak eskatutako azken Soziolinguistiko klusterrak, kale neurketen arabera, Euskararen erabilera jaitsi egin zela frogatu zuen. Hori horrela, Euskararen erabilpenari buruz argitaratutako azken datuei erreparatuta, %82k euskara dakiela ikusten da eta %67ak hitz egiten duela. Beraz, eskualde honetan euskaraz hitz egiteaz gain, euskaraz bizi garela esan dezakegu, baina joera kezagarria agerian utzi du neurketa honek.

Jatorriari dagokionez, azken urte hauetan hainbat herrialdeetatik herritar berriak iristen ari dira. Ikasle etorkin edo hemen jaio arren, familia atzerritarra duten ikasleak %12 dira.

Aspektu honetan gure helburua hizkuntzaren aniztasuna errespetatzea da eta aniztasun hori herrien gizabanakoen aberastasun eta eskubidetzat hartzea, interesa eta errespetuzko jarrerak izateko eskubide horren erabilerarekiko eta hizkuntza normalizazioko prozesuekiko.

Gizarte mailari dagokionez, erdiko maila eta erdi-beheko mailako familiek osatzen dute gure zentroa. Ikasle bekadunen portzentaia %33,3 da.

Familien egituraketa ezberdinak ikusten dira gure ikastetxean: gurasoen familia egonkorak, guraso bakarreko familiak, banandutakoak, baita sexu bereko gurasoak dituzten familiak ere.

Goizeko Izarra Ikastola, euskalduna, inklusiboa, demokratikoa, ingurunean errotua, hezkidetzarekin konprometitua, desberdintasunaren orekatzailea, berriztatzailea eta aniztasunaren integratzailea da.

Ikaskuntza irakaskuntza prozesuaren erdian ikaslea jartzen dugu. Ikasle bakoitzaren izaera eta nortasuna kontuan hartuz, hezkuntza integrala eta ekitatiboa bilatuko da pertsona bakoitzari behar duena eskainiz, berezitasunak aintzat hartuta, bere garapen osoa lor dezala bermatuz.

Euskalduna: Euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen, normalizazio eta sustapenarekin guztiz konprometitua dago.

Inklusiboa: Pertsona guztiei zabaldua dagoen eskola, aniztasuna errespetatzen eta baloratzen duena.

Demokratikoa: Komunitate osoaren parte hartzea eta elkarrekin lan egitea bultzatzen duen eskola.

Ingurunean errotuta: Herrian daude gure sustraiak eta eguneroko erreferentziak. Mutrikuko eta kostaldeko herrien ohiturak,

tradizioak eta kezkak kontutan ditugu eta gure helburuekin bat datozen ekintza, mugimendu eta jaietan parte hartzen dugu.

Hezkidetzarekin konprometitua: Gure eskolak, berdintasunean, elkarrenganako eta norberarekiko errespetuan oinarritutako heziketa landuko du, genero bereizkeriarik gabe emakume/gizon estereotipo inposatuak gainditzeko asmoz.

Jarrerak eta balio positiboak elkarrekin zainduz eta hizketan zein portaeretan adierazpen diskriminatzailea oro baztertuz, pertsona osoak prestatzeko helburua dugu.

Berdintasunezko harremanak sustatuko dituen eta mota guztietako bazterketen nahiz genero-indarkeriaren aurkako jarreretan heziketa duen ikastetxea bultzatuko dugu.

Beste zereginetako bat, rolen aurrean ikasleak kritiko bihurtzea izango da.

Elkarbizitza: Ikasle guztien ezaugarri eta beharrak kontutan izanik, elkartasunezko jarrera eta desberdintasunen ulermenean eta errespetuan lan egingo da denen beharrei erantzun nahian. Pertsona osotasunean garatzearen alde lan egiten duena, txikitatik emozioen heziketa azpimarratuz. Gatazkak saihesteko eta era baketsuan ebazteko irakasten duena, ikaslea arduratsua izanez.

Desberdintasunaren orekatzailea: Maila kultural, sozial eta ekonomiko desberdinetako gizakiei aukera berdinak eskainiko dizkio ikastetxeak. Horretarako, eta desorekak konpentsatu ahal izateko, behar diren neurriak martxan jarriko dira.

Berritzailea: Gelako ikaskuntza irakaskuntzaren etengabeko hobekuntzan zentratuz, metodologia aktiboa eta irakasleen formakuntzan oinarritua daramagu. Eskolaren jardueran, irakasleen prestakuntza prozesua iraunkorra da. Irakasleek egokitzen joan behar dute garatzen ari diren metodologietara, teknologia berrietara eta inguruko errealtate sozialera, eguneroko lanaren inguruan hausnarketa eginez, kalitatezko hezkuntza lortzeko.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Hornikuntza teknologikoa

Pantaila interaktiboak/arbela digitalak: Haur hezkuntza 4 urteko geletatik hasi eta LH 6. mailara arteko gela guztietan daude.

Gurpildun/Mugikor bat dugu behar den espazioan erabili ahal izateko.

Esan behar da LH 4. mailan eta LH 3. zikloan daudenak software zaharkitua dutela, bat ez dagoela ezta erabilgarri eta dokumentuak arbelean proiektatzen ditugunean irakurri ezin direla.

Ikasgela guztietan eta laguntza gelan mahaigaineko ordenagailu bana.

IKT gela: mahaigaineko 14 ordenagailu eta pantaila interaktibo bat.

2 Irakasle gela: bakoitzean 3 mahaigaineko ordenagailu daude eta beheko irakasle gelan sarera konektatutako fotokopiagailu bat.

Zuzendaritza: Portatil bi eta mahaigaineko ordenagailu bat. Fotokopiagailua ere bai.

Idazkaritza: Mahaigaineko ordenagailu bat.

Esan beharra dago ikastetxean ditugun mahai gaineko ordenagailuak zaharkituak daudela eta oso motel dabiltzala arazo tekniko ugari ematen dituztelarik.

Irakasleentzako 12 Chromebook.

Ikasleentzako chromebookak:

Ikasleek: LH 5. eta 6. mailako ikasleek bana dute eta karga armairuetan gordetzen dira.

Hasieran eskola 2.0 programarekin ikasleentzako banatu zituzten portatilak ezin dira ezta erabili. Etsigarria da haiekin lanekan hastea.

Plataformak:

1-Gure metodologia aurrera eramateko, zenbait mailatan eta irakasgaietan, plataforma digital ezberdinak erabiltzen ditugu:

LH 3. mailan Blinklearning (ingelesa, matematika, gaztelania, euskara, ingurune lantzeko)

LH 4-5 eta 6. mailetan Blinklearning google classroom-ekin lotuta (Ingelesa, matematika, euskara, ingurune, gaztelania lantzeko).

LH 5 eta 6. mailetan PyctoHazia euskara lantzeko.

2022-2023 ikasturtean, LH 6. mailan zientziako "Proyecto R3" esperimentuak lantzeko Labsland erabiltzen ari dira.

LH 1. eta 2. mailetan:

- Ikaslar.saioka (Euskara, matematika, desafioak-ikerketak lantzeko).
- “encódigo” irakurketa-idazketa lantzeko eta Pyctoidazketa gaztelania lantzeko.
- Ingelesa: Ikaslar.saioka

Google Workspace: Ikastetxeko irakasle guztiek eta LH4. 5. eta 6. mailetako ikasleek zuzendaritza taldeak kudeatzen duen google workspace-eko kontua dute.

Webgunea: www.goizekoizarra.eus (Xare-k kudeatuta)

Facebook-eko profila: <https://es-es.facebook.com/goizekoizarraikastola/>

Tutoretza site-a : <https://sites.google.com/goizekoizarra.eus/tutoretza2021-2022>

2-Administrazioaren arloan bi aplikazio pribatu erabiltzen ditugu:

INIKA: Ikasleen txostenak bete eta argitaratzeko.

PEÑALARA: ordutegiak egiteko aplikazioa.

Zerbitzu digitalak eta mantenua

CAU mantenuko zerbitzua: Ikasketa Burua arduratzen da CAUa deitzeaz. Pertsona honek ez dauka ordurik RPTan lan hau egiteko. Eskola barneko orduetatik kudeatzen ditu sortzen diren inzidentzia guztiak. Ez bakarrik CAU-koak izan daitezkeen inzidentziak baizik eta erabiltzen ditugun plataforma eta zerbitzuekin zerikusia dutenak ere.

Konektibitatea:

Wi-fi-a: Hezkuntzak jarritakoa ikastetxe osoan. Irakasleei galdetuta seinalea ona dela diote.

Sare konexioa: Hezkuntzak Jarritakoa ikastetxe osoan.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Ikasturte Hasierako ebazpenean 2022-2023 ikasturtean ikastetxe guztiok Ikastetxeko Proiektu Digitala sortu behar dutela adierazten da eta ekainak 16rako Hezigunera igotzea. Hori horrela, Goizeko Izarra ikastolak aurtengo ikasturtean IPDa egiten hasi da, horretarako lan taldea osatuz. IPDa aurrera eramateko Europakotik datorren DigCompOrg markoa jarraituz egin da. Europako Gomendioaren funtsezko konpetentziak XXI. mendeko erronka eta erronka global nagusiei lotuta daude. Erronka horiei aurre egin beharko diete ikasleek, eta ahalik eta heldutasun handienarekin hedatu beharko dituzte.

Oinarrizko irakaskuntza arrakastaz gainditzeko duen ikasle orok, eta, beraz, irteera-profila lortzen duenak, eskuratutako ikaskuntzak mobilizatzen jakitea bermatu nahi da, bizitzan zehar izango dituen erronka nagusiei erantzuteko.

Horren barruan sartzen dira:

Egungo gizarteak eskaintzen dituen era guztietako aukerak modu kritikoan aztertzea eta baliatzea, bereziki kultura digitalarenak, onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizi-kalitate pertsonala eta kolektiboa hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.

Gizarte ireki eta aldakorretan lankidetzan aritzea eta elkarrekin bizitzea, aniztasun pertsonala eta kulturala aberastasun-iturri gisa baloratuz eta beste hizkuntza eta kultura batzuekiko interesa agertuz.

Proiektu kolektibo baten parte sentitzea, bai tokiko eremuan, bai esparru globalean, enpatia eta eskuzabaltasuna garatuz eta guztion onerako erabaki koherenteak bultzatuz eta hartuz.

Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko aukera emango dioten trebetasunak garatzea, ezagutzan konfiantza izanik, garapenaren motor gisa, eta ezagutzaren arrisku eta onuren balorazio kritikoa eginez.

Eskuratu beharreko funtsezko konpetentzien artean konpetentzia digitala (KD) aipatzen da curriculum berrian.

Gero eta digitalizatuago den mundu global honetan moldatzeko, non lankidetzak eta elkar-lana premia bihurtzen diren, beharrezko eta ezinbesteko den konpetentzia digitalean prestatu behar ditugu gure hezkuntza komunitateko kideak.

Konpetentzia digitalak teknologia digitalak modu seguruan, osasungarrian, jasangarrian, kritikoan eta arduratsuan erabiltzea eskatzen du, ikasteko, lanerako eta gizartearen parte hartzeko, bai eta horiekin elkarrekaritza ere. Informazio eta datuen alfabetizazioa, komunikazioa eta lankidetzak, hezkuntza mediatikoa, eduki digitalen sorrera (programazioa barne), segurtasuna (ongizate digitala eta zibersegurtasunarekin lotutako konpetentziak barne), herritartasun digitalarekin, pribatutasunarekin, jabetza intelektualarekin, arazoaren ebazpenarekin eta pentsamendu konputazional eta kritikoarekin lotutako gaiak.

Beraz, gaur egungo eta etorkizuneko gizarteak dituen beharrezkoak, erronkei eta eskaerei erantzun dieten pertsonak formatu behar ditugu.

Beste alde batetik ikastetxearen kudeaketa eta antolamendu arloetan ere teknologien erabilera saihestezina da gaur egun. Plan honen bidez lortu nahi dugu:

- Baliabide digitalen erabilerari dagokionez abiapuntuko egoera ebaluatzea.
- Ikastetxearen Plan Digitala funtsezko baliabide hartzea gure hezkuntza-erakundearen estrategia digitalaren planifikazioan.
- Gure estrategiak berrikustea, berrikuntza sustatzeko gaitasuna hobetzeko eta ahalik eta etekin handiena ateratzeko baliabide digitalei, eta hezkuntza-baliabide digitalei.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Funtsezkoa da zuzendaritza-taldeak Ikastetxearen Plan Digitala diseinatzeko eta ezartzeko prozesua bultzatzea eta bertan parte hartzea.

Digitalizazio batzordea Ikasketa Buruak eta BeAk (Berrikuntza Arduradunak) osatzen dute. Beti zuzendaritza taldearen babesean eta honek bultzatuta;

Diagnosia: Ikastetxeko digitalizazio batzordea izango da egoeraren diagnosia egingo duena. Horretarako "Selfie for School" tresna erabiliko du.

Datuen azterketa: Ondoren datuen azterketa egingo du, selfie toolkit tresna erabilita, indarguneak eta ahuleziak detektatzeko. Ikaskomunitateko kideak inplikatu dituzte eta hauen iradokizunak jasoko dituzte.

Digitalizazio plana: bukatzeko hobetzeko plana osatuko du.

Digitalizazio plana ezagutzera emango du batzordeak.

Proiektuaren aldizkako orrazketa.

Ikastetxearen Proiektu Digitalak lehentasunak zehaztu, helburu nagusiak jaso eta aurrera eramango diren jarduerak jasoko ditu.

IPDak ikastetxeak nora iristea nahi duen irudikatuko du.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

2022-2023 ikasturteko Urteko Planean IPDa idatzi behar dela jasotzen da, horretarako Digitalizazio Batzordea eratuko delarik. Bertan zehaztuko dira IPDa diseinatu eta inplementatzeko helburu, ekintzak eta hauen denboralizazioa. Guzti honek berebiziko garrantzia dauka, hemen finkatuko direlako digitalak gure ikasleek zer irteera profila edukiko duten.

IUPean azaltzen den bezala eta Ikasturte Hasierako ebazpenean idatzita dagoen bezala, Curriculum eta Digitalizazio ikastaroa Goizeko Izarra Ikastolako irakasle guztiek egin behar dute. Hau modu egoki batean gauzatzeko, beharren arabera barne

formazioak eskainiko ditugu.

IPDa Hezkuntza proiektuarekin ere zuzenean lotuta dago, bertan euskalduna, inklusiboa, demokratikoa, ingurunean errotua, hezkidetzarekin konprometitua, desberdintasunaren orekatzailea, berriztatzailea eta aniztasunaren integratzailea dela zehazten du.

Bere HELBURU ETA LEHENTASUNEN artean hauek zehazten ditu:

Ikasleengan askotariko gizartean elkarbizitzako gaitasuna piztea gizarteko kultura- aniztasunak estimatuz eta ikasle guztien egiazko inklusioa xede duten hezkuntza proposamenak lehenestea.

Denei parte hartzeko bideak eskaintzea bakoitzari dagokien gaitasun- esparrutik eta hezkuntza zereginetan familiarekin laguntza sustatzea.

Talde-lana eta ideien trukea sustatzea eskolako esparruko talde guztietan.

Irakasleengan prestakuntza eta etengabeko formakuntza bultzatzea, eguneratze jarraituaren aukera eskainiz.

“Metodologia aukerak” atalean hurrengo helburua zehazten du:

Digitalizazioa bultzatzea, baliabide digitalen erabilera sustatuz. Testu liburuaz gain askotariko informazio-iturriak erabiltzea; hala nola, ikus-entzunezko materialak, material didaktiko digitalak eta online gelak. Eduki digitalak sortuko dira talde-lanetan edo bakarkako lanetan txertatuz. Gizarteak ezartzen dituen erronken aurrean beharrezkoak diren eskuhartzeak egiteko, ikasleek beharrezkoak dituzten konpetentziak eta jakingaiak Digitalizazio Planean jasoko dira.

Beste alde batetik 2022-2023 ikasturteko Ikastetxeko Urteko Planean zehazten den 3. helburua hurrengo da:

3.Helburua: Ikastetxeko Proiektu Digitala egitea.

3.1. Jarduera:Formazioak jaso eta akreditazioa lortu.

Arduraduna:BeA,Digitalizazio batzordea ,Mentorea,Irakaslegoa.

Denboralizazioa :Ikasturtean zehar

Baliabideak :Hezkuntza Sailak eskainitako ikastaroak

Ebaluazio adierazleak :Formazioak eta akreditazioak jaso dira.

3.2.Jarduera: Ikastetxeko Proiektu Digitala idatzi.

Arduraduna: Irakaslegoa

Denboralizazioa: Ikasturtean zehar

baliabideak: Digigunea,"DigCompEdu Gelan" sarea

ebaluazio adierazleak:Ikastetxeko Proiektu Digitala idatzi da.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Ikastetxeko Proiektu Digitala egiten hasi aurretik beharrezkoa da ikastetxea non eta nola dagoen jakitea. Horretarako, Selfie For School tresna erabili da. Tresna honek DigComOrg Europako marko digitalari egiten dio erreferentzia.

Selfie For School aurrera eramateko, ikastetxeko zuzendaritza-taldekoek, irakasleek eta ikasleek galdera batzuk erantzun behar izan dituzte. Lehenetsitako galderak erantzun ziren tresna hau lehenengo aldia zelako aurrera eramaten genuena.

Selfie for School 2022ko urrian Zuzendaritza taldekoek, irakasleek eta 4, 5 eta 6.mailako ikasleek bete zuten.

Galdetegi horren erantzunekin txostena sortu genuen eta Ikastetxearen ikuspegia nolakoa zen jakiteko balio izan digu bai ikuspegi orokorra baita eremukakoa.

SELFIEaren analisia egiteko Selfie Toolkit tresna erabili genuen, txostenaren interpretazio soila zaila egiten zitzaigulako. Hori horrela, hona hemen sei eremuetan egindako analisiaren laburpena:

1.Emitza altuak orokorrean.

Azpiegitura eta ekipamendua.

Pedagogia: laguntza eta baliabideak eta kolaborazio sareak.

Emitza baxuak orokorrean

Ebaluazio-jarduketak, lidergoa eta prestakuntza profesionala.

Emitza harrigarriak , zergatik?

Kolaborazio eta sarea harrigarria da altua ematea ez dugulako egiten ditugun aurrerapausoak ebaluatzen eta ez dugulako eztabaidatzen abantaila eta desabantaila buruz.

Ebaluazio jarduketak baxua ematea harrigarria da gure lana aurrera eramateko ebaluazioa oso garrantzitsua delako. HH eta 1. zikloetan ez da feedbackik egiten ingurune birtualak erabiltza baina bai goiko mailatan.

2.Arloen laburpenean begiratu.

Kolaborazio eta sareak : Irakasleek askoz hobeto baloratu dituzte eremu hauek.

LH 5 eta 6 mailakoek erantzun dute. Maila hauetan besteetan baino gehiago erabiltzen dira baliabide digitalak. Batez ere HH konparatzen badugu. Ez da abantaila eta desabantaila buruz hitz egiten ikasleekin.

Pedagogia ikasgelan aplikatzea: baliabide digitalak erabiltzen dira baina ez da hausnartzen hauek premietara egokitzea, sormena lantzea bultzatzea, motibatzea eta elkarlana bultzatzen duten.

Ikasleen kompetentzia digitala: irakasleak uste dutelako ez dugula arlo horretan askorik lantzen, segurtasuna, informazio fidagarria aurkitzea...

3.Arloko emaitzak aztertu eta arlo bakoitzaren barneko adierazpenak konparatu.

Kolaborazioa eta sareak: Ikastetxean teknologia berrien erabilerari buruz egiten ditugun aurrerapausoak ebaluatzerakoan hobetu behar dugu eta teknologia berriei ikasi eta irakastearen abantaila eta desabantaila buruz ez dugu eztabaidatzen.

Pedagogia: laguntza eta baliabideak: Irakasleek ez dute uste baliabide digitalik sortzen dutenik beraien irakaskuntza lana indartzeko eta ikastetxean ez da ingurune birtualak nahikoa erabiltzen ikasleekin.

Pedagogia: ikasgelan aplikatzea: Gure irakasleek ez dute nahikoa sustatzen ikasleek diziplinarteko proiektuetan parte-hartzea teknologia erabiliz, ez dute ikasleen sormena sustatzen duten ikaskuntza digitalik erabiltzen, ez dituzte teknologia digitalak erabiltzen ikasleen arteko elkarlana bultzatzeko.

Ikasleen kompetentzia digitalak: Irakasleek ez dute ikasten beste pertsona batzuek egindako lanaz fidatzen, ez dute ikasten interneteko informazioa fidagarria eta zuzena den ala ez egiaztatzen, ez dute eduki digitalak sortzen ikasten eta ez dute teknologia digitalak erabiliz komunikatzen ikasten.

4.Zuzendaritza-taldean, irakasleen eta ikasleen arteko adierazpenetan alde handiak daude?

Kolaborazioa eta sareak : Zuzendaritzaren iritziz ikastetxean egiten dugu teknologiaren erabilerari buruzko eztabaida,

irakasleen iritziz ez dugu egiten nahikoa eta ikasleen iritziz asko eztabaidatzen dugu.

Zuzendaritzaren iritziz teknologia berriak asko erabiltzen ditugu beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko, irakasleen iritziz ez horrenbeste.

Azpiegitura eta ekipamenduak: Zuzendaritzak askoz hobeto baloratzen du ikastetxean dauden gailu digitalen kopurua. Irakaslegoak zuzendaritzak baino hobeto puntuatu du datuak babesteko sistema.

Pedagogia: ikasgelan aplikatzea: Zuzendaritzak ez du uste teknologia berriak irakaskuntza-metodoa ikasle bakoitzaren premietara egokitzeko erabiltzen denik, irakaslegoak hobeto baloratzen du eta ikasleek oso ondo baloratzen dute. Zuzendaritzak ez du uste irakasleek ikasleak motibatzen dituzten ikaskuntza digitaleko jarduerarik egiten, irakasleek hobeto baloratzen dute eta ikasleek oso ondo.

Ikasleen konpetentzia digitalak: Ikasleek interneten segurtasunez jokatzeko ikasten dutela diote baina zuzendaritza eta irakaslegoa ez daude horren ziur.

Zuzendaritzak eta irakaslegoak uste dute ikasleek ez dutela interneteko informazioa zuzena den ala ez egiaztatzen ikasten dutenik.

5.SELFIE txostenaren arloko emaitzak nabarmen dira ezberdinak?

Ba al dago arearen bat bereziki baxua edo altua besteekin alderaturik?

Arloren baten erantzunak harrigarriak al dira? Zergatik?

ZUZENDARITZA TALDEA

Emaitza altuenak Azpiegitura eta ekipamenduetan, Pedagogia: laguntzak eta baliabideak eta kolaborazioa eta sareak eremuetan.

Baxuagoak lidergoan, etengabeko prestakuntza profesionalean eta Pedagogia : ikasgelan aplikatzea eremuetan

Eta oso baxuak ebaluazio- jarduketak eremuan.

IRAKASLEAK

Azpiegitura eta ekipamenduak eta Pedagogia: laguntzak eta baliabideak ataletan emaitzak hobeagoak dira.

Baxuagoak Lidergoan, kolaborazioa eta sareak arloetan eta etengabeko prestakuntza profesionalean.

Eta oso baxuak ebaluazio-jarduketak atalean.

IKASLEAK

Ikasleen emaitzetan ez dago alde handirik. Arlo guztietan emaitzak altuak dira.

Ba al dago arearen bat bereziki baxua edo altua besteekin alderaturik?

Bereziki baxuak

Lidergoa: Ez dugu estrategia digital bat.

Etengabeko prestakuntza profesionala: Zuzendaritza eta irakaslegoaren ustez ez dugu nahikoa eztabaidatzen teknologia digitalekin irakastearekin lotuta dauden EPP beharrez, irakasleek ez dute EPP-n parte hartzeko aukerarik teknologia digitalekin irakatsi eta ikasteari dagokionez eta ez diegu irakasleei laguntzen teknologia digitalekin irakastearekin lotutako bizipenak hezkuntza-komunitatearekin partekatzen.

Ebaluazio-jarduketak: Irakasleek ez dituzte teknologia digitalak erabiltzen ikasleen trebetasunak ebaluatzeko, ikasleei feedback egokia emateko, ikasleek haien ikaskuntzaren gainean hausnar dezaten ezta ikasleek haien ikaskideek egindako lanari buruzko ohar konstruktiboak egin ahal izan ditzaten.

Bereziki altuak:

Azpiegitura eta ekipamenduak: Plan bat dugu irakasleei urruneko irakaskuntzarekin sortzen diren erronkei aurre egiten laguntzeko, betiere ikasleen ikaskuntza-premiekin eta haien testuinguru sozioekonomikoarekin lotuta , ikastetxean espazio fisikoek irakaskuntza eta ikaskuntza errazten dute teknologia digitalen bidez, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek laguntza teknologikoetarako sarbidea dute eta ikastetxean online gordailuak edo liburutegioak daude, irakaskuntza eta ikaskuntzarako materialak dituztenak.

Pedagogia: laguntzak eta baliabideak: Ikasleek online baliabideak bilatzen dituzte, irakasleek baliabideak sortzen dituzte haien irakaskuntza lana indartzeko, irakasleek ikaskuntzarako ingurune birtualak erabiltzen dituzte ikasleekin eta irakasleek teknologia digitalak erabiltzen dituzte ikastetxearekin lotutako komunikazioan.

Eremu honen analisiaren ondoren, ikastetxeko AMIA egin da. AMIA esan dezakegu ikastetxearen analisi zehatza eta eskematikoa dela, ikastetxea non dagoen ikusten laguntzen diguna.

AMIA analisia
Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)
Estrategi digitalik ez.
Ikasleekin erabiltzeko baliabide digitalak mailakatu gabe.
Irakasleen formakuntzaren aurrerapausoak ez dira baloratzen.
Ikasleekin ez dago gunerik abantailei eta desabantailei buruz hitz egiteko.
Irakasleek ez dute gunerik abantailei eta desabantailei buruz hitz egiteko.
Ez dira baliabide digitalak nahikoa erabiltzen ikasleen lana ebaluatzeko.
Ebaluazioaren feedbacka ez da baliabide digitalak erabiliz egiten.
Baliabide digitalak erabiltzen dira baina ez da hausnartzen hauek premietara egokitzen badira edo sormena, motibazioa eta elkarlana bultzatzen badute.
Ikasleei informazio eraginkorra edo egokia aurkitzen ez zaie erakusten.
Ikasleekin ez gara aritzen segurtasunaren inguruan.
Irakasleek ez dute uste baliabide digitalik sortzen dutenik beraien lana indartzeko.
Irakasleek uste dute ez direla ingurune birtualak nahikoa erabiltzen ikasleekin.
Ikasleek ez dute eduki digitalak sortzen ikasten.
Ikasleek ez dute teknologia digitalak erabiliz komunikatzen ikasten.
Irakasleek ez dute EPP- parte hartzeko aukerarik teknologia digitalekin irakatsi eta ikasteari dagokionez .
Ikasleen datuen babeserako protokolorik ez.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)
Mantenurako formazio eta ordu falta.
Irakasleak formaziorako ordu falta.
Sare sozialak, siteak, webgunea elikatzeko ordu falta.
Hezkuntza aplikazioak ezagutzeko eta erabiltzeko ordu falta.
Irakasleak ordu falta estrategia eta metodologia berriak prestatzeko baliabide teknologikoak erabiliz.
Konpetentzia digital nahikoa ez duten irakasleak.
Familien konpetentzia digital eskasa.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)
Azpiegitura egokia.
Maila bakoitzeko plataforma digitalak aukeratuta.
Irakasleak baliabide digitalak erabiltzeko prest.

Sare sozialen erabilera.
Sarera sarbidea, kablez eta wifi-aren bitartez.
Ikastetxean badaude baliabide teknologikoak irakasleek erabiltzeko.
Irakaslegoak irakaskuntza baliabideak bilatzen ditu sarean.
Irakaslegoak teknologia digitalak erabiltzen ditu hezkuntza komunitatearekin komunikatzeko.
Lehen hezkuntzako maila guztietan erabiltzen ditugu plataforma birtualak ikasleekin.
Erabiltzen dira teknologia digitalak ikasleen arteko elkarlana bultzatzeko.
Ikastetxeak ongi antolatutako baliabide digitaletarako sarbide....
Irakasleek ikastetxean kolaboratzen dute teknologia digitala.....
Ikasleek orokorrean oso ondo baloratzen dituzte galdetu zaizkien eremu guztiak.
Irakaslegoa ikasteko prest.

Aukerak (kanpo-faktoreak)
Curriculum eta digitalizazio ikastaroa klaustroak aurrera eramatea.
Eskolako gune birtual antolatua sortzea eta erabilera zehaztea.
Irakaskuntza ez presentzialeko edo semi presentzialeko egoera bat suertatuz gero erabiliko den estrategia planifikatzeko aukera.
Tresna teknologiko berrien erosketarako prozedura ezartzeko eta hausnarketa egiteko aukera.
Tresnak obsoleto gelditzen direnean hauekin zer egin prozedura ezartzeko aukera.
Irakasleentzako prestakuntza-estrategia bat ezartzeko aukera, irakasleei aukera emango diena beraien gaitasun digitala garatzeko.
Konpetentzia digitala curriculumean txertatzeko eta garatzeko aukera.
Jardueren artean, desberdintasunak konpentsatzeko eta eten digitala murrizteko estrategiak jasotzeko aukera.

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

1.-Indargunea: Ikastetxean ikasleentzako baliabide digitalak eskuragarri.

Ahulezia: Ikasleekin ez da baliabide digitalen edo Interneteko arrisku eta onuren inguruan hitz egiten.

· Ikastetxean ikasleek teknologia berriak erabiltzen dituztela kontutan hartuz, tutoretzetan horien inguruko hausnarketara bideratu, kritikotasunean heziz.

2.-Indargunea: Ikas-egoeretan lan egitea.

Ahulezia: Baliabide digitalak mailakatuta ez izatea.

· Ikastetxeak ikas-egoeretan lan egiten duela aprobetxatuz, errealitatetik gertu dauden baliabide digital mailakatuak txertatzea modu koherente batean.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

1.-Ahulezi: Beharren arabera irakasleen formakuntza eskaintza.

Aukera: Ikastetxean sartu berri diren irakasleei orientazioa eta laguntza ematea.

· Irakasleen Harrera planaren barruan, estrategia digitalarekin, baliabide digitalen erabilerarekin eta ikastetxeko tresna normalizatuarekin lotutako alderdiak biltzea eta ikastetxean sartu behar diren irakasleentzako, ikastetxean dugun estrategia digitalaz informazioa helarazteko prozedura diseinatzea eta sortzea.

2.-Ahulezi: Ikasleen konpetentzia digitalerako irteera profila zehaztu gabe izatea.

Aukera: Estrategia digitala idaztea.

· Ikasleen konpetentzia digitalerako irteera profila zehazteko

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

1.-Indargune: Ikastetxeak baditu webgunea, sare sozialak eta site-a

Mehatxu: Webgunea, sare sozialak eta site-a elikatzeko eta mantentzeko prozedura eta denbora falta.

· Ikastetxeak ikastetxearen komunikazio-plana, eguneratze bitartekoak eta prozedurak zehaztea, hezkuntza komunitateak, web-orriaren, site eta sare sozialen bidez, oinarrizko dokumentazioa, proiektuetan parte hartzeari buruzko informazioa eta ikastetxeak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazioa eskura izan ditzan.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

1.-Ahulezi: Ikasleekin Interneten inguruko arrisku eta onuren inguruan lanketarik ez.

Mehatxu: Ikasleek teknologia berrien inguruko gehiegizko segurtasuna.

· Ikasleei kanpo formazioak eskaini Interneteko arrisku eta onuren inguruan seguru jokatzeko irakasteko



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

LG.1 HELBURUA: Ikastetxeko Proiektu Digitala idaztea eta inplementatzea

Deskriptorea		Epea
LG 1.2 Ikaskuntza digitalerako teknologien alde onak komunikatzen dira		2025/06/15
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.2 A1 Proiektu digitala hezkuntza komunitate osoak onartu du (irakasle-taldeak, eskola-kontseilua	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1.-Proiektu digitala idazteko arduraduna izendatu.	Bilera	Zuzendaritza Taldea	2022/09/30	Egina
2.-Arduradunaren funtzioak zehaztu.	Bilera Ikasturte Hasierako ebazpena	Digitalizazio batzordeko burua + Zuzendaritza taldea	2022/09/30	Egina
3.-Proiektu digitala idazteko batzordea osatu eta saioak definitu ordutegian.	Bilera	Zuzendaritza taldea + Digitalizazio batzordeko burua	2022/09/30	Egina
4.-Batzordearen funtzioak zehaztu.	Bilera Ikasturte Hasierako ebazpena	Digitalizazio batzordea + zuzendaritza taldea	2022/09/30	Egina
5.-irakaslegoak "Selfie for schools" tresna bete.	-Selfie for schools	Digitalizazio batzordeko burua	2022/09/30	Egina
6.-"Selfie for schools"-en lortutako emaitzak aztertu eta lehenetsiak finkatu.	-Selfie hausnarketa txantiloia -Mentorearen laguntza.	Digitalizazio batzordea	2023/01/30	Egina
7.-Ikastetxeko Proiektu Digitala idatzi.	-IPD idazteko pdf editagarria. -Mentorearen laguntza.	Digitalizazio batzordea	2023/06/15	Prozesuan (%60-79)
8.-Proiektu digitala klaustroan eta Eskola Organo Gorenean onartu.	-Klaustroaren bilera -OOG-renaren bilera	Zuzendaritza taldea	2023/05/30	Detektatua
9.-Proiektu Digitala inplementatzeko arduraduna izendatu.	Bilera	Zuzendaritza taldea	2023/09/05	Detektatua
10.-Arduradunaren funtzioak zehaztu.	Ikasturte Hasierako ebazpena	Digitalizazio batzordeko burua + zuzendaritza taldea	2023/09/05	Detektatua
11.-Proiektu digitala inplementatzeko batzordea osatu.	Bilera	Zuzendaritza taldea.	2023/09/05	Detektatua
12.-Batzordearen funtzioak zehaztu	Ikasturte Hasierako ebazpena	Digitalizazio batzordea + zuzendaritza taldea	2023/09/05	Detektatua
13.-Ikastetxeko Proiektu Digitala inplementatzen hastea.	Bilera	Digitalizazio batzordea	2023/09/15	Detektatua
14.-IPD-a berrikustea eta dagozkion moldaketak egitea behar izana ikusten bada.	Bilera	Digitalizazio batzordea	2024/06/01	Detektatua

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua		
II.1 Internetaren erabilerak dakartzan arriskuak (jazarpena, pribazitate eza, iruzurrak ...) ikasgaietan lantzea.		
Deskriptorea		Epea
II 1.2 Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua		2024/11/30
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.2 A2 Lan-talde bat sortu du eta beharrezkoak diren saioak definitu ditu datuen babesari, identitate	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1.-Lan taldea sortu.	Bilera	Zuzendaritza taldea +Digitalizazio batzordeko burua	2024ko iraila	Detektatua
2.-Lan taldearen zereginak eta saioak ordutegian definitu.	Ikasturte Hasierako ebazpena Bilera	Digitalizazio batzordea + Zuzendaritza taldea	2024ko iraila	Detektatua
3.-Zikloka ziberbizikidetzaren definizioari buruz hausnartu.	Berritzeguneko aholkularitza edo beste agente bat.	Digitalizazio batzordea +Elkarbizitza batzordea	2024ko iraila	Detektatua
4.-Ziberkomunikazio inklusiboa sustatzeko estrategiei buruz hausnartu.	Berritzeguneko aholkularitza edo beste agente bat.	Digitalizazio batzordea +Elkarbizitza batzordea	2024ko iraila	Detektatua
5.-Zikloetan zibergatazken ezaugarriei buruz hausnartu.	Berritzeguneko aholkularitza edo beste agente bat.	Digitalizazio batzordea +Elkarbizitza batzordea	2024ko iraila	Detektatua
6.-Zibergatazkek ekiditzeko estrategiei buruz hausnartu.	Berritzeguneko aholkularitza edo beste agente bat.	Digitalizazio batzordea +Elkarbizitza batzordea	2024ko iraila	Detektatua
7.-Tecnologia digitalak gaizki erabiltzeak dakartzan arriskuak lantzeko materialak bilatu / sortu.	Bilerak Interneteko baliabideak. Berritzegunek izan ahal dituen baliabideak.	Digitalizazio batzordea/irakasleak	2024/12/20	Detektatua
8.-Ikasleei kanpo formazioak eskaini interneteko arrisku eta onuren inguruan seguru jokatzeko irakasteko.	kanpoko agente batek emandako formazioa.	Digitalizazio batzordeko burua +Elkarbizitza batzordea	2024/12/20	Detektatua

GP Garapen profesionala

Helburua

GP. 1 Ikastetxean sartu berri diren irakasleei orientazioa eta laguntza ematea eta gaitasun digitala eta berrikuntza pedagogikoa hobetzen parte har dezaten bultzatzea.

Deskriptorea		Epea
GP 1.1 Agerikoa da EGPren aldeko konpromisoa		2025/09/30
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.1 A 2 Irakasleen Harrera Planaren barruan, estrategia digitalarekin, baliabide digitalen erabilerare	Ehunekotan	%80
GP 1.1 A 1 Ikastetxean sartu berri diren irakasleentzako tresna eta aplikazio normalizatuen urteko oina	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1.-Harrera planeko lan taldea sortu, zereginak finkatu eta ordutegian lan saioak finkatu.	Bilera Ikasturte hasierako ebazpena	Zuzendaritza taldea +Digitalizazio batzordeko burua	2025/03/12	Detektatua
2.-Formazioarekin edo tutorizazioarekin arduratzeko pertsona izendatu	Bilera	Digitalizazio batzordea + zuzendaritza taldea	2025/03/14	Detektatua
3.-Digitalizazioaren inguruan irakasle etorri berriek jakin beharrekoen inguruan hausnartu.	Bilera	Digitalizazio batzordea	2025/04/15	Detektatua
4.-Estrategia digitalean hartutako erabakiak irakasleen harrera planean txertatu.	Bilera	Digitalizazio batzordea	2025/05/15	Detektatua
5.-Sartu berri diren irakasleentzako, ikastetxean dugun estrategia digitalaz informazioa (baliabideak, araudia, laguntzak, protokoloak....) helarazteko prozedura bat diseinatu eta sortu.	Bilera	Digitalizazio batzordea	2025/06/13	Detektatua
6.-Irakasleen Harrera plana irakasle sartu berriei aztertu.	Bilera Harrera plana	Tutorizaziorako izendatutako pertsona	2025/06/13	Detektatua

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua		
EJ.1 Banakako eta taldeko ikaskuntzaren emaitzak optimizatze aldera, ikaskuntzaren analisia inplementatzea.		
Deskriptorea		Epea
EJ 3.1 Ikaskuntzaren analisia estrategikotzat hartzen da		2024/06/15
Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 3.1 A2 Hezkuntza-maila guztietako ikasleen produkzioetarako errubrikak komunak adostu ditu	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1.- Lan taldea sortu eta ordutegian lan saioak finkatu.	Bilera	Zuzendaritza taldea +Digitalizazio batzordeko burua	2024/05/01	Detektatua
2.-Taldearen zereginak finkatu.	Bilera Ikasturte hasierako ebazpena	Digitalizazio batzordea +zuzendaritza taldea	2024/05/02	Detektatua
3.-Mailaka ikas-egoerak aztertu eta jarduera kalifikagarriak zeinzuk diren zehaztu.	Bilera	Digitalizazio batzordea + Irakasleak	2024/06/10	Detektatua
4.-Mailaka jarduera kalifikagarri bakoitzarentzat errubrika bat diseinatu / bilatu.	Bilera	Digitalizazio batzordea + irakasleak	2024/06/30	Detektatua

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

EC. 1 Curriculum berria oinarritzat hartuta ikas-egoerak berrikustea, teknologia digitalek pedagogiaren arloan eskaintzen dituzten aukera berriak islatzeko.

Deskriptorea		Epea
EC 2.5 Curriculum arloen bidez argi eta garbi hornitzen da ikaskuntza digitala		2024/04/30
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.5 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuan, arlo edo ikasgai desberdinak garatzean, gaitasun digita	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1.-Arduraduna izendatu.	Bilera	Zuzendaritza taldea	2023/09/04	Detektatua
2.-Lan taldea izendatu eta lan saioak ordutegian finkatu.	Bilera	Digitalizazio batzordeko burua + Zuzendaritza taldea	2023/09/06	Detektatua
3.-Curriculum berria irakurri eta honen arabera ikasleen gaitasun digitalaren irteera profilari buruz hausnartu.	Bilera Curriculum berria	Digitalizazio batzordea + irakasleak	2023/09/13	Detektatua
4.-Mailaka, ikasleen konpetentzia digitaleko irteera profila (ikasleek lortu beharreko konpetentzia digitala) zehaztu eta dokumentu baten jaso.	Curriculum berria Bilera	Digitalizazio batzordea + irakasleak	2023/09/29	Detektatua
5.-Mailaka ikasleen konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak ezarri.	Irteera profila zehazten duen dokumentua Bilerak	Digitalizazio batzordea + irakasleak	2023/10/31	Detektatua
6.-Ikastetxean erabiltzen diren baliabide digitalen inguruko hausnarketa egin (IDU-ren printzipioak betetzen dituzte?, sormena bultzatzen dute?)	Ikastetxean erabiltzen diren baliabide digitalak Bilera	Digitalizazio batzordea + irakasleak	2023/10/20	Detektatua
7.-Zikloka zein baliabide digital erabiliko den eztabaidatu eta erabakiak hartu.	Bilera	Digitalizazio batzordea + irakasleak	2023/11/10	Detektatua
8.-Mailakatze digitala hobeto ikusteko baliabide digitalak mailakatuta dokumentua sortu.	Bilera	Digitalizazio batzordea	2024/02/16	Detektatua
9.-Proposamena klaustrora zabaltu.	Irteera profila eta baliabide digitalak mailakatuta dokumentua Klaustroaren bilera	Digitalizazio batzordeko burua	2024/02/21	Detektatua
10- Estrategia digitala idatzi.	IPD batzordearen bilera Sortutako dokumentuak	Digitalizazio batzordea	2024/03/22	Detektatua
11-Ikastetxeko oinarrizko dokumentazioan txertatu.	Zuzendaritza taldearekin bilera	Zuzendaritza taldea	2024/04/30	Detektatua

Helburua

EN. 1 Hezkuntza komunitatearekin komunikazio arrakastatsua izateko ikastetxearen oinarrizko dokumentazioa, informazioa eta zerbitzuen eskaintza webgunearen, site-en eta sare sozialen bidez partekatzea.

Deskriptorea		Epea
EN 2.2 Agerikoa da online presentzia dinamikoa		2025/10/30
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 2.2 A1 Ikastetxeak ikastetxearen komunikazio-plana, eguneratze-bitartekoak eta -prozedurak zehaz	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1.-Arduraduna izendatu.	Bilera	zuzendaritza taldea	2025/06/02	Detektatua
2.-Lan taldea izendatu eta lan saioak ordutegian izendatu.	Bilera	Digitalizazio batzordeko burua +zuzendaritza taldea	2025/06/04	Detektatua
3.-Zer, non, nola eta noiz eguneratu nahi den hausnartu.	Bilera	Digitalizazio batzordea + klaustroa	2025/06/11	Detektatua
4.-Webgunearen, site-en eta sare sozialen erabilerari eta eguneratzeari buruzko protokoloa idatzi.	Bilera	Digitalizazio batzordea	2025/06/18	Detektatua
5.-Webgunean, site-etan eta sare sozialetan txertatu beharreko informazioa eta dokumentuak txertatu.	Denbora Dokumentuak	Sortutako protokoloan adierazitakoa.	2025/06/30	Detektatua
6.-Webgunearen erabilera familiei eta ikasleei zabaltu.	Ikasturte hasierako bilerak ikastetxeko webgunea	Irakasleak	2025/10/31	Detektatua
7.-Webgunea, site-ak eta sare sozialak eguneratuta mantendu.	Denbora	Sortutako protokoloan adierazi bezala	data gabe	Detektatua

AZ Azpiegiturak

Helburua		
AZ.1 Tutoretza saioetan lantzeko programa bat eratzea.		
Deskriptorea		Epea
AZ 2.1 Erabilera arduratsurako arauak daude ezarrita		2025/03/31
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.1 A2 Ikastetxeak prestakuntza-saioak (tutoretza-saioak) eta ikasleentzako materialak zehaztu ditu	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1.-Tecnologia digitalak gaizki erabiltzeak dakartzan arriskuak lantzeko, materiala lantzeko tutoretza saioak / ikas-egoerak zehaztu.	Bilera	Elkarbizitza batzordea +Digitalizazio batzordea	2025/02/12	Detektatua
2.-Tutoretza planean/bizikidetza planean txertatu internetaren erabilerak dakartzan arriskuei buruzko plangintza.	Bilera	Elkarbizitza batzordea +Digitalizazio batzordea	2025/02/28	Detektatua

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

Deskriptorea

Epea

Adierazlea

Mota

Helmuga

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	LG.1 HELBURUA: Ikastetxeko Proiektu Digitala idaztea eta inplementatzea	-IPD idaztea: Ekainak 16an -Inplementatzen hastea: 2025eko irailean. -IPD-a berrikustea: 2024ko ekainean	-Dokumentua idatzita dagoela ziurtatu. -Bilerak:Prozesuaren jarraipena -Bilera:Azken berrikustea.	-Digitalizazio batzordea -Digitalizazio batzordea -Digitalizazio batzordea	Prozesuan (%20-39)	
II	II.1 Internetaren erabilerak dakartzan arriskuak (jazarpena, pribazitate eza, iruzurrak ...) ikasgaietan lantzea.	-2024ko azaroan	-Irakasleentzako formazio saioak egin dira -Materialak bilatu/sortu dira -Ikasleentzako formazio saioak egin dira.	-Digitalizazio batzordea	Detektatua	
GP	GP. 1 Ikastetxean sartu berri diren irakasleei orientazioa eta laguntza ematea eta gaitasun digitala eta berrikuntza pedagogikoa hobetzen parte har dezaten bultzatzea.	-2025eko maiatza -2025eko iraila	-Dokumentua sortu da eta prozedura diseinatu eta sortu da. -Irakasle sartu berriekin aztertu da.	-Digitalizazio batzordea -Irakasle etorri berriek	Detektatua	
EJ	EJ.1 Banakako eta taldeko ikaskuntzaren emaitzak optimizatze aldera, ikaskuntzaren analisia inplementatzea.	2024ko ekaina	-errubrikak sortu dira.	-Irakasleak	Detektatua	
EC	EC. 1 Curriculum berria oinarritzat hartuta ikas-egoerak berrikustea, teknologia digitalak pedagogiaren arloan eskaintzen dituzten aukera berriak islatzeko.	-2023ko urrian -2024ko otsaila -2024ko apirila	-Ikasleen konpetentzia digitalerako irteera profila dokumentu baten jaso da. -Baliabide digitalak mailakatuta dokumentua sortu da. -Ikastetxeko oinarrizko dokumentazioan txertatu da.	-Irakasleak -Digitalizazio batzordea	Detektatua	

EN	EN. 1 Hezkuntza komunitatearekin komunikazio arrakastatsua izateko ikasketxearen oinarrizko dokumentazioa, informazioa eta zerbitzuen eskaintza webgunearen, site-en eta sare sozialen bidez partekatzea.	-2025eko ekainean -2025eko urrian	-Webgunearen,sare sozialen eta site-n erabilerari eta eguneratzeari buruzko protokoloa idatzi da. -Txertatu beharreko informazioa eta dokumentuak txertatu dira. -Erabilera familia eta ikasleei zabaldu da.	-Digitalizazio batzordea -Irakasleak	Detektatua	
AZ	AZ.1 Tutoretza saioetan lantzeko programa bat eratzea.	-2025eko otsaila -2025eko martxoa	-Tutoretza saioak /ikas-egoerak zehaztu dira. -Tutoretza planean / Elkarbizitza planean txertatu da plangintza.	-Digitalizazio batzordea -Irakasleak	Detektatua	
IB						